

PRENTSA-OHARRA: 2021.09.07

## ‘Elkano esperientzia’-k erronka global handiei helduko die lehen mundu biraren bitartez

- Magallanes/Elkanoren itsas bidaiara itzulita, 10 galderako ibilbide birtuala egingo dute
- Eta irailaren 16ko panel birtualean, lau adituk kontzientzia planetarioaren inguruan eztabaidatuko dute

Bihar, irailak 8, egingo den Euskal Diasporaren Eguna dela eta – 1522an, Nao Victoria Sevillara iristearekin batera–, Etxepare Euskal Institutuak, Elkano Fundazioak, Iberoamerikako Estaturen Erakundeak (OEI) eta Euskadiren Argentinako Ordezkaritzak (Mercosur) ozeanoan zeharreko **'Elkano esperientzia' proiektua jarri dute abian**. Alde batetik, **'Munduari lehen itzulia' ibilbide birtuala** izango da, **10 galderatan oinarrituko dena XVI. mendera itzultzeko**, eta bihartik aurrera [esteka honetan](#) bisitatu ahal izango dena; eta bestetik, **irailaren 16an '500 urte: kontzientzia planetarioaren eraikuntza' elkarrizketa birtuala egingo dute**, non hainbat diziplinatako lau aditu hauek parte hartuko duten: Alvaro Aragón (UPV/EHUko Erdi Aroko, Modernoko eta Amerikako Historia Saileko irakasle agregatua), Nelson Aguilera (Txileko Unibertsitate Australeko antropologoa), María Amelia Mellado (Txileko Unibertsitate Australeko antropologoa) eta Julieta Gaztañaga (Zientzia Antropologikoen Institutua, Buenos Airesko Unibertsitateko Filosofia eta Letren Fakultatea). Topaketa Rafael Zulaika Elkano Fundazioko proiektuen koordinatzaileak moderatuko duela, euskarara eta portuguesera aldi bereko itzulpena izango da

eskuragarri, eta publikoak bertan parte hartu ahal izango du, [formulario honen bidez](#) izena emanda.

## **Gizakiaren erronkak**

Lehen mundu bira egin zenetik 500 urte igaro direla, elkarrizketa birtual horretan aipatutako adituek gogoeta egingo dute bidaiak ekarri zituen aldaketei buruz eta egungo erronka globalekin izan zuen harremanari buruz, hala nola klima-aldaketarekin, migrazio-fluxuekin, kultura-aniztasunarekin eta mundializazioarekin, besteak beste.

Magallanes eta Elkanoren bidaiari buruzko galdera-erantzunen bidaia birtual baten bidez egingo dute, izan ere, bidaia horrek lehen mundializazioaren hasiera eta alteritatearen aurkikuntzaren hasiera ekarri zuen. Besteak beste, honako gaiak izango dituzte hizpide: munduari lehen itzulia ematearen inguruan kultura desberdinek ekarri dituzten narratiba historikoak; globalizazio goiztiarraren mugari horrek ekonomian, zientzian, kulturartekotasunean edo giza eskubideetan izan ditugun 500 urteko aldaketei buruzko begirada garaikidea.

"Elkano Esperientzia" Etxepare Euskal Institutuaren, Elkano Fundazioaren, Iberoamerikako Estatu Erakundearen (OEI) eta Euskadiren Argentinako Ordezkaritzaren (Mercosur) arteko lankidetzaren hitzarmen baten emaitza da.

### **Info+**

Beñat Doxandabaratz  
Etxepare Euskal Institutua  
Tabakalera / Andre Zigarrogileen plaza, 1  
Donostia / San Sebastián  
T: 609 121 666  
[komunikazioa@etxepare.eus](mailto:komunikazioa@etxepare.eus)

[www.etxepare.eus](http://www.etxepare.eus)

